



ERANSKINAK


1. eranskina. Galdetegiaren erredua.....	28
2. eranskina. Galdetegiaren emaitzak	32
3. eranskina. “Read on” programaren deskribapena.....	34
4. eranskina. Lockwoodek burututako proposamenak.....	35
5. eranskina. Irakurzaletasuna bultzatzeko ekintzak.....	36
6. eranskina. Proposamenaren bitartez lantzen diren edukiak, helburuak eta gaitasunak	38
7. eranskina. “Anbotoko señoie” album ilustratua	41
8. eranskina. “Anbotoko señoie” album ilustratuko istorioa	48
9. eranskina. Proposameneko saioen ariketak eta segida.....	53
10. eranskina. Liburuko fitxa.....	58




1. eranskina. Galdetegiaren eredia

Ondoren, irakurketa eta irakurzaletasunaren inguruko esaldi batzuk topatuko dituzue. Erantzun itzazu kontuan harturik:

 = Ez nago ados.




 = Ez ados, ez desados.

 = Ados nago.

Auto-eraginkortasuna			
Badakit datorren urtean ondo irakurriko dudala.			
Irakurle ona naiz.			
Irakurtzen dudanean, gauza berriak ikasten ditut.			




Irakurketa saihestu			
Ez zait gustatzen zerbait irakurtzea hitzak zailegiak badira.			
Ez zaizkit gustatzen hiztegi galderak.			
Istorio/Ipuin zailak ez dira dibertigarriak irakurtzeko.			

Ez zait gustatzen istorioan zehar pertsonaia asko agertzen direnean.			
--	--	--	--

Jakingura			
Irakasleak zerbait interesgarria azaltzen badigu, horri buruzko gauza gehiago irakurri nahi ditut.			
Gauza berrien inguruan irakurtzea gustatzen zait.			

Inplikazioa			
Fantasiarazko eta errealitatezko liburuak irakurtzen ditut.			
Irakurtzen dudanean, irudiak imajinatzen ditut.			
Liburu on bat irakurtzen dudanean, pertsonaiekin lagunak egiten ditudala sentitzen dut.			
Misterioak gustatzen zaizkit.			
Hasieratik dibertigarriak diren liburuak gustatzen zaizkit.			
Abenturazko liburu asko irakurtzen ditut.			

Garrantzia eta onarpena			
Niretzat oso garrantzitsua da irakurle ona izatea.			
Batzuetan, nire lagunek irakurle ona naizela esaten didate.			
Irakasleak irakurle ona naizela esatea gustatzen zait.			
Askotan, nire gurasoek ondo irakurtzen dudala esaten didate.			
Nire notak hobetzeko irakurtzen dut.			
Gurasoek irakurketaren notak galdetzen dizkidate.			
Irakurketaren inguruan ahal dudana GUTXIEN egiten dut.			
Behartzen nautelako irakurtzen dut.			

Arlo soziala			
Nire familiarekin maiz joaten naiz liburutegira.			
Askotan, nire anaia-arrebei irakurtzen diet.			
Batzuetan, nire gurasoei irakurtzen diet.			
Nire lagunekin irakurtzen dudanari buruz hitz egitea gustatzen zait.			

Zer motatako liburuak irakurtzea gustatzen zaizu? Markatu "X" batekin zure gustukoak diren gaiak:

Abenturazko liburuak		Familiari buruzko liburuak	
Amodiozko liburuak		Fantasiarazko liburuak	
Animaliarazko liburuak		Historiarazko liburuak	
Beldurrezko liburuak		Kirolari buruzko liburuak	
Bidaiazko liburuak		Misteriozko liburuak	
Egunerokoak (diarioak)		Musikazko liburuak	
Euskal mitologiarazko liburuak		Umorezko liburuak	

Aipatu interesatzen zaizkizun beste gai batzuk: (natura, gizakia, biografia, poesia,...)

Aste honetan, liburu dibertigarriren bat irakurri duzu? (Zure erantzuna "BAI" bada, aipatu liburuaren izenburua eta egilea).

--

Zenbatero irakurtzen duzu liburu dibertigarri bat?

1	2	3	4

1= ia inoiz

3= astean behin gutxi gorabehera

2= hilabetean behin gutxi gorabehera

4= ia egunero

2. eranskina. Galdetegiaren emaitzak

Item	Ehunekoa	Frekuentzia
Badakit datorren urtean ondo irakurriko dudala.	%85,7	48
Irakurle ona naiz.	%71,4	40
Irakurtzen dudanean, gauza berriak ikasten ditut.	%89,3	50
Irakasleak zerbait interesgarria azaltzen badigu, horri buruzko gauza gehiago irakurri ahal ditut.	%69,8	39
Gauza berrien inguruan irakurtzea gustatzen zait.	%75,0	42

1.taula: Auto-eraginkortasuna eta jakingura

Item	Ehunekoa	Frekuentzia
Ez zait gustatzen zerbait irakurtzea hitzak zailegiak badira.	%53,6	30
Ez zaizkit gustatzen hiztegi galderak.	%62,5	35
Istorio/Ipuin zailak ez dira dibertigarriak irakurtzeko.	%55,4	31
Ez zait gustatzen istorioan zehar pertsonaia asko agertzen direnean.	%51,8	29

2.taula: Irakurketa saihestu

Item	Ehunekoa	Frekuentzia
Irakurtzen dudanean, irudiak imajinatzen ditut.	%66,1	37
Liburu on bat irakurtzen dudanean, pertsonaiekin lagunak egiten ditudala sentitzen dut.	%60,7	34

3.taula: Inplikazioa

Item	Ehunekoa	Frekuentzia
Niretzat oso garrantzitsua da irakurle ona izatea.	%76,8	43
Nire notak hobetzeko irakurtzen dut.	%76,8	43
Irakurketaren inguruan ahal dudana GUTXIEN egiten dut.	%30,4	17

Behartzen nautelako irakurtzen dut.	%55,4	31
Askotan, nire anaia-arrebei irakurtzen diet.	%51,8	29
Batzuetan, nire gurasoei irakurtzen diet.	%62,5	35

4.taula: Garrantzia eta onarpena, eta arlo soziala

3. eranskina. “Read on” programaren deskribapena

“Read On” programa 1998.urtean sortu zen Centre for Peer Learning eskutik. Talde honek Eskoziako Dundee unibertsitatean dihardu, irakurketa gaitasuna hobetzeko proposamenak sortuz. Proiektu hau 7-8 urteko eta 11-12 urteko ikasleek hurrengo xede hauek lortzeko bideratuta dago: irakurketa gaitasuna hobetzea (ikasleena zein irakasleena); irakurketarako motibazioa eta gozamina sustatzea; ikasleen autoestimua eta seguritatea areagotzea; kooperaziorako eta gizarterako gaitasuna garatzea; eta, eskolako zereginetan familiaren parte hartzea sustatzea dira (Blanch & Durán, 2006). Hori lortzeko prozeduran, bi osagai ezberdin erabiltzen dira:

Lehenengo osagaia, “*Paired Reading*” izenekoa da; bertan, Lehen Hezkuntzako 2. mailako eta 5. mailako bikote bat eratzen da eta irakurketa partekatuta egiten dute. Hasiera batean, biak batera irakurtzen hasten dira eta txikienak bere burua bakarrik irakurtzeko gai ikusten duenean berak bakarrik irakurtzea eskatzen du. Irakurle nagusiaren zeregina besteak ondo irakurtzen duen ala ez ziurtatzea da, eta ezetz balitz akatsak zuzentzen laguntzea. Momentu honetan, ikasle txikia akatsa zuzentzeko gai bada, berak bakarrik irakurtzen jarraitzen du. Osterantzean, biak batera irakurtzen hasten dira berriro.

Bigarren osagaia “*Paired Thinking*” da; horren bidez, bikoteak irakurtzen duenaren edukien gainean hausnartzen du, eta horri buruzko kritika egin ere. Horretarako, galdera batzuetaz baliatzen dira, hala nola, *zeintzuk dira istorioaren ideia nagusiak?* ulermen globala lantzeko; *zer deritzazu ideia horiei?* ebaluazioa egiteko; *zer gogoratzen duzu istorioari buruz?* berrikusketa egiteko; eta, *beste gauzaren bat eztabaidatu dituzu?* ulermenean sakontzeko.

Proposamena bideratu ondoren lortutako emaitzek diote programak egoki funtzionatzen duela; izan ere, jarria eta irakurketa ulermenean ez ezik, ikasleen gaitasun sozialetan ere hobekuntzak eman dira.

4. eranskina. Lockwoodek burututako proposamenak

Ondoren azalduko diren proposamenak, 2011. urtean Lockwood-ek *Promover el placer de leer en la Educación Primaria* izeneko liburutik atera dira. Autore honen asmoa irakurzaletasuna sustatzeko proposamen ezberdinak aurkeztea zen, eta proposamen hauetan, irakurzaletasuna eta album ilustratuak uztartzen ditu. Proiektuak Ingalaterrako bi eskoletan martxan jarri ziren, bakoitza adin ezberdinetako ikasleekin.

Lehenengo proiektua 7-8 urteko ikasleekin burutu zen, eta album ilustratuen bidezko irakurketa eta gozamina azpimarratu nahi izan zen. Izan ere, hauen bidez, irakurleak empatia, irudimen sortzailea eta goi mailako pentsamendu gaitasunak garatu ditzake. Helburu horiek lortzeko, *War Game* (Michael Foreman) izeneko album ilustratua erabili zuten, eta horren bidez gudaren gaia landu zuten. Horretarako, ikasleei liburuarekin modu aktiboan parte hartzeko aukera eman zitzaizen; esate baterako, albumentzako elkarrizketak sortuz, hausnarketak eginez, testua lantzeko estrategia ezberdinak erabiliz (“*silla caliente*” edo “*pasillo de reflexión*” izenekoak), besteak beste. Irakaslearen esanetan, proiektu honen bidez, emaitza onak lortu ziren. Izan ere, ikasleak konturatu ziren album ilustratuek gaiak sakontasunean lantzeko abagunea ere eskain dezaketela.

Bigarren proiektua Gaztelaniazko ikasgaiari burutu zuten, 11-12 urteko ikasleekin, hain zuzen ere. Horren bitartez, gaztelania ez ezik, curriculumeko beste arloak ere jorratu ziren (arte, antzerkia, alfabetismoa). Proposamen honen xedea ikasleek *The Mysteries of Harris Burdick* (Chris Van Allsburg) izeneko album ilustratua irakurtzea, komentatzea, irudikatzea, grabatzea eta berridaztea zen, betiere Arte Hezkuntzarekin uztartuz. Horretarako, album ilustratuak dituen 14 ilustrazioak eta izenburua aztertu behar zuten, eta horren ostean, istorioak asmatu behar zituzten.

5. eranskina. Irakurzaletasuna bultzatzeko ekintzak

Proiektuak ez diren bestelako ekintzak ere sortu dira irakurzaletasunaren inguruan. Matak (2008) eta Garcíak (2010) horri buruzko ekintza batzuen aurkezpena egiten dute; horien artean, ipuin kontalaria, irakurle onaren txartela eta irakurketa txartelak, motxila bidaiaria eta album ilustratua ditugu. Hurrengo lerroetan, jarduera bakoitzaren ezaugarriak azalduko dira:

I. Ipuin kontalaria:

Ekintza hau aproposa da irakurketan hasi berri diren irakurleentzat. Izan ere, honen bitartez, bitartekariak (irakasleak) egunero “irakurketa ordua” zehazten du, eta denbora tarte horretan, liburu edo album ilustratu baten irakurketa egiten du. Modu honetan, irakurleak entzun egiten du, eta entzumen horretatik lortzen duen gozamenak irakurtzera bultzatzen du (García, 2010).

II. Irakurle onaren txartela eta irakurketa txartelak:

Ekintza honen helburu nagusia irakurketarekiko pizgarriak eta sariak sortaraztea da. Horretarako, irakurleek irakurtzen dituzten liburuen izenburuak eta autoreak jasotzen dituzte, baita horri buruzko laburpenak eta balorazioak ere (irakurketa txartelak). Irakurlea, aldeztatik zehaztutako liburu kopuru batera heltzen denean, irakurle onaren txartela jasotzen du (García, 2010).

III. Motxila bidaiaria:

Ekintza hau ipuin eta liburu onenak familiei hurbiltzean datza. Familiek aste bat dute motxila horretan dauden ipuinak eta liburuak irakurtzeko, eta bertan dagoen “liburu bidaiaria”-n bere esperientzia eta balorazioa idatziz jasotzeko (García, 2010). Matak 2008an idatzitako *10 ideas clave de animación a la lectura* liburuan, ekintza hau aurrera eramane duten ikastetxe batzuen adibideak aurkezten ditu; esate baterako, Plasenciako CEIP Miralvalle, Torrelavegako IES Marqués de Santillana eta Kordobako IES Francisco de los Ríos de Fernán Núñez.

IV. Album ilustratua:

Album ilustratuak, Haur Hezkuntzarako funtsezko baliabideak ez ezik, Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko erreminta interesgarriak ere badira. Izan ere, Duránek

(2000) adierazten duen bezala, album ilustratuak, bertan ageri diren ilustrazioen bidez istorioa kontatzeko ahalmena dauka. Hortaz, oraindik ere irakurtzen ikasi ez duten irakurleak irakurketaren munduan sartzeko abaguneak eskaintzen ditu

6. eranskina. Proposamenaren bitartez lantzen diren edukiak, helburuak eta gaitasunak

EDUKIAK ETA EDUKI MULTZOA
<p>1.1. <u>EUSKARA ETA LITERATURA, ETA GAZTELANIA ETA LITERATURA</u> (152.orrialdea)</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2. eduki multzoa: ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea. (lapbook-aren aurkezpena) • 3. eduki multzoa: idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea. (lapbook-a eta beste amaieraren asmakuntza) • 4. eduki multzoa: Literatura-hezkuntza (album ilustratuaren kontzeptua eta irakurketa)
OINARRIZKO HEZKUNTZAREN HELBURUAK
<p>a) Kulturaren oinarriak eskuratu ahal izateko alfabetatzea, dimentsio guztiak orekatuz, euskaldunetik unibertsalera. (9.orrialdea)</p>
ETAPAKO HELBURUAK (ARLOA: EUSKARA ETA LITERATURA, ETA GAZTELANIA ETA LITERATURA)
<ul style="list-style-type: none"> • Hainbat generotako literatura-testuak irakurtzea eta entzutea, eta, hala, literaturaz gozaten ikastea, horrek sentsibiltate estetikoan aurrera egiteko, norberaren hizkuntza-ondarea aberasteko eta identitate kulturala eraikitzeke aukera ematen duen aldetik. (152.orrialdea)
OINARRIZKO ZEHAR- GAITASUNAK
<p>a) Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia. (61.orrialdea)</p> <ul style="list-style-type: none"> a. Hitzezko eta idatzizko komunikazio jariokor, autonomo, sortzaile eta eraginkorrak egitea. b. Hitzik gabeko kodeak ulertzea eta jarioz, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea. <p>b) Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia. (61.orrialdea)</p> <ul style="list-style-type: none"> a. Informazioa bilatzea, aukeratzea, gordetzea eta berreskuratzea hainbat informazio-iturritatik (informazio-iturri inprimatu, ahozko, ikus-entzunezko, digital eta bestelakoetatik), eta iturri horien egokitasuna ebaluatzea. b. Informazioa interpretatzea eta ebaluatzea (pentsamendu kritikoa).


- c. Ideiak sortzea eta hautatzea (pentsamendu sortzailea).
- d. Baliabide kognitiboen erabilera estrategikoa egitea, ikasitakoa baliatuz eta beste egoera batzuetara transferituz.
- c) Elkarbizitzarako konpetentzia. *(61-62.orrialdea)*
 - a. Taldean ikastea eta lan egitea, nork bere ardurak onartuz eta helburu komuneko lanetan lankidetzan arituz, pertsonen eta iritzien aniztasunak dakarren aberastasuna aitortuta.
 - b. Norberaren portaerak giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren gizarte-ohituretatik eratortzen diren arauak betetzea.
- e) Izaten ikasteko konpetentzia. *(62.orrialdea)*

DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO GAITASUNAK


- a) Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia. *(63.orrialdea)*
 - a. Hainbat esparrutako hitzezko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak, analogikoak zein digitalak, ulertzea eta jarrera kritikoz balioestea, xede pertsonalak, sozialak edo akademikoak erdiesteko.
 - b. Esparru pertsonal, sozial edo akademikoen berezko hitzezko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak sortzea, eraginkortasunez erantzuteko askotariko komunikazio-beharrizanei.
 - c. Literatura-testuak interpretatzea eta balioestea, testuen esanahia modu partekatuan eraikita; eta, horren bidez, mundua ulertzea, literatura-ondarea banako eta taldeko esperientzia sinbolizatzeko modu gisa balioestea, norberaren kultura-nortasuna eraikitzea eta sentsibiltate estetikoa garatzea.
- f) Arterako konpetentzia. *(66.orrialdea)*
 - a. Hizkuntza artistikoak adierazteko eta komunikatzeko baliabideak direla ulertzea, haiek norberaren arte-ekoizpenetan erabiltzea, eta hizkuntza horiek obra artistiko eta kulturaletan identifikatzea.

b. Arte-produktuak era pertsonal eta arrazoituan sortzea hainbat egoera eta bizi-esparrutan, emozioak, bizipenak eta ideiak adierazteko, irudikatzeko eta komunikatzeko.


7. eranskina. "Anbotoko señoerie" album ilustratua




Portada



1. eta 2. orrialdeak



3. eta 4. orrialdeak



5. eta 6. orrialdeak

"Bazen behin Anboto señoie izeneko pertsonaia garrantzitsu bat hemen, Euskal Herrian. Batzuk Anboto señoie, beste batzuk, Anbotoko Dama, Anbotoko Mari, Bideko Emazte Zuria edo Mari deitzen zioten.



7. eta 8. orrialdeak

Anbotoko Mariak etxe asko zituen Euskal Herritik zehar, adibidez, Anbotoko mendiko, Gorbeiaiko mendiko edo Murumendi mendiko kobazuloetan. Eta zazpi urtetik zazpi urtera mugitzen zen leize batetik bestera argi biziz inguratutik.

- Baina nolakoa da señoie? - galdetu du Oierrek.
- Galdera ona egin duzu mutiko! - erantzun dio andereñoak eta istorioarekin jarraitu du.



9. eta 10. orrialdeak


Anbotoko Damak ahuntz edo oilo hankak izaten ditu leize barruan dagoenean, baina kobazulotik ateratzean, emakume eder baten itxura hartzen du. Egunean zehar, bere ilea orrazten dihardu, eskuetan daukan urrezko orrazi batekin.



11. eta 12. orrialdeak

Gure Mariri ez zaio injustizia gustatzen, eta gezurrak esaten dituenak, lapurtzen diena eta besteak errespetatzen ez dituenak zigortu egiten ditu. Modu berean, ondo portatzen direnak eta zintzo direnak saritzen ditu.”

- Ene! Ahaztu zait esatea!



13. eta 14. orrialdeak

Antzinean, Euskal Herriko artzainek Anbotoko Damaren kobazuloetara igotzen ziren bere laguntza eskatzera. Horretarako, opari bezala, arkume bat entregatzen zioten, eta harriak eta tranponak botatzen zituzten bere omenez.



15. eta 16. orrialdeak

Anderenoak istorioa kontatzen amaitu du, eta guztiok aho bete hortz geratu gara; ezin hitzik esan ere. Benetan existituko da Anbotoko señoriek? Ikusteko aukera izango ote dugu? Hainbat galdera nituen buruan bueltaka eta bueltaka, baina ezin erantzun.



17. eta 18. Orrialdeak

Ikastolako txirrinarak jo du eta guztiok gela batzen hasi gara. Dena batu dut eta ilaran jarri naiz Bideko Emazte Zuriaren istorioa behin eta berriro burura etortzen zitzaidala.



19. eta 20. orrialdeak

Jolastokira atera gara, eta han zegoen ama nire zain. Ikusi bezain laster, korrika joan naiz amaren besoak besarkatu nahian.

Irrikan nago andereño Izarok kontatutako istorioa esateko. Ezin dut minutu bat gehiago eutsi! Eta ogitartekoa eskuetan dudala, istorioa kontatzen hasi naiz.



21. eta 22. orrialdeak

Etxera heldu garenean, Anbotoko señoiari buruzko informazio gehiago jakin nahi izan dut, eta aitari ordenagailua hartzeko baimena eskatu diot.


Anbotoko Mari interneteko bilatzailean ipini, eta informazio asko agertu zait: irudiak, testuak, kondairak, bideoak... denetarik dago han!



23. eta 24. orrialdeak

Bat-batean, hurrengoia irakurri dut webgune batean: Anbotoko Mari besteanako laguntasuna saritzen du eta gezurra, lapurreta eta errespetu eza gutxiesten ditu.

Hara! Andereñoak kontatu diguna da hori! Irakurtzen jarraitzeko irrikitan nago, ezin eutsi!



25. eta 26. orrialdeak

Halako batean, harri eta zur geratu naiz testu horretan agertzen den informazioarekin! Mari agertzen denean, ekaitza dator beti, trumoiak jotzen du eta tximistak agertzen dira zerruan!
Horrek zeharo igutu nau eta aitonarengana korrika joan naiz hori egia ote den jakiteko.

Aitonari esan eta barrezka hasi da honakoa esanez:
Iloba maitea, nire amak beti esaten zigun hori ekaitza zetorren/bakoitzean. Ondo portatu Fernando! Anbotoko señorie dabil hemendik eta zintzoa ez bazara, bere haitzulora eramango zaitu zigortuta. Gu beldurtzen ginen eta etxera joaten ginen laster batean.



27. eta 28. orrialdeak

Aitonak kontaturiko istorio horrek gehiago beldurtu nau. Ohera joateko garaia heldu da, baina nik ezin lorik hartu.
Hurrengo egunean, andereño Izarori kontatu beharko diot ikasitako guztia gelara sartu bezain laster.



29. eta 30. orrialdeak

Azkenean, orduak eta orduak pentsatzen egon eta gero, loak hartu nau.



31. eta 32. orrialdeak

Hurrengo goizean, espero baino goizago esatu naiz. Inoiz baino azkarrago motxila prestatu, gosaldtu eta txandala jantzi dut.



33. eta 34. orrialdeak

Eskolako autobusean mutu joan naiz. Leihora begiratzen eman dut bidaia osoa, ikusten nituen mendi guztietan ea kobazulorik ote dagoen begiratuiz.



35. eta 36. orrialdeak

Eskolara heldu garenean, andereñoari esan diot aitona kontutako istorioa. Berak ez zekien eta ikaskideei kontatzeko eskatu dit.

Nire ikaskide batzuek ez dute sinetsi kontatzen ari nintzaiena, eta beste batzuk beldurtu egin dira.



37. eta 38. orrialdeak

Gaurko eguraldia gero eta kaskarragoa da, eta arratsalde euritsua izan dugu. Gaua heldu denerako, Gorbeia menditik, tximistak ikusten hasi gara baita trumoiak entzuten ere!




39. eta 40. orrialdeak

Ohean nago etzanda, beldurrez jota eta izarekin belarrietaraino estalirik. Anbotoko señorie egongo ote da handik? Nork esango ote zuen gezurren bat? Edo lapurretarik egin? Agian norbaiten laguntasuna eta zintotasuna dator.



41. eta 42. orrialdeak



43. eta 44. orrialdeak



kontrazal

8. eranskina. “Anbotoko señoie” album ilustratuko istorioa

Arratsaldeko azken ordua da eta andereñoa oso haserre dago Ibairekin.

- Ibai, txarto portatzen jarraitzen baduzu, Anbotoko señoie etorriko da zure bila eta berarekin eraman egingo zaitu.

Nor ote da Anbotoko señoie delako hori? Zer esan nahi du andereñoak horrekin? Ni ezin izan naiz kuriositate horrekin geratu eta andereñoari zera galdetu diot:

- Andereño, zergatik esan diozu hori Ibaire? Nor da Anbotoko señoie, bada?

Andereño Izarok biribil bat egitea eskatu digu, eta honela hasi da:

“Bazen behin Anbotoko señoie izeneko pertsonaia garrantzitsu bat hemen, Euskal Herrian. Batzuk Anbotoko señoie, beste batzuk, Anbotoko Dama, Anbotoko Mari, Bideko Emazte Zuria edo Mari deitzen zioten. Anbotoko Mariak etxe asko zituen Euskal Herritik zehar, adibidez, Anbotoko mendiko, Gorbeia mendiko edo Murumendi mendiko kobazuloetan. Eta zazpi urtetik zazpi urtera mugitzen zen leize batetik bestera argi biziz inguraturik.”

- Baina nolakoa da señoie? – galdetu du Oierrek.
- Galdera ona egin duzu mutiko! – erantzun dio andereñoak eta istorioarekin jarraitu du.

Anbotoko Damak ahuntz edo oilo hankak izaten ditu leize barruan dagoenean, baina kobazulotik ateratzean, emakume eder baten

itxura hartzen du. Egunean zehar, bere ilea orrazten dihardu, eskuetan daukan urrezko orrazi batekin.

Gure Mariri ez zaio injustizia gustatzen, eta gezurrak esaten dituen, lapurtzen duena eta besteak errespetatzen ez dituen zigortu egiten ditu. Modu berean, ondo portatzen direnak eta zintzo direnak saritzen ditu.”

- Ene! Ahaztu zait esatea!

“Antzinean, Euskal Herriko artzainek Anbotoko Damaren kobazuloetara igotzen ziren bere laguntza eskatzera. Horretarako, opari bezala, ankume bat entregatzen zioten, eta harriak eta txanponak botatzen zituzten bere omenez”.

Anderenoak istorioa kontatzen amaitu du, eta guztiok aho bete hortz geratu gara; ezin hitzik esan ere. Benetan existituko da Anbotoko señorie? Ikusteko aukera izango ote dugu? Hainbat galdera nituen buruan bueltaka eta bueltaka, baina ezin erantzun.

Ikastolako txirrinak jo du eta guztiok gela batzen hasi gara. Dena batu dut eta ilaran jarri naiz Bideko Emazte Zuriaren istorioa behin eta berriro burura etortzen zitzaidala.

Jolastokira atera gara, eta han zegoen ama nire zain. Ikusi bezain laster, korrika joan naiz amaren besoak besarkatu nahian. Irrikan nago andereño Izarok kontatutako istorioa esateko. Ezin dut

minutu bat gehiago eutsi! Eta ogitartekoa eskuetan dudala, istorioa kontatzen hasi naiz.

Etxera heldu garenean, Anbotoko señoari buruzko informazio gehiago jakin nahi izan dut, eta aitari ordenagailua hartzeko baimena eskatu diot. Anbotoko Mari interneteko bilatzailean ipini, eta informazio asko agertu zait: irudiak, testuak, kondairak, bideoak... denetarik dago han!

Bat-batean, hurrengo irakurri dut webgune batean: Anbotoko Mari besteenganako laguntasuna saritzen du eta gezurra, lapurreta eta errespetu eza gutzien ditu.

Hara! Andereñoak kontatu diguna da hori! Irakurtzen jarraitzeko irrikitan nago, ezin eutsi!

Halako batean, harri eta zur geratu naiz testu horretan agertzen den informazioarekin: Mari agertzen denean, ekaitza dator beti, trumoiak jotzen du eta tximistak agertzen dira zeruan!

Horrek zeharo izutu nau eta aitonarengana korrika joan naiz hori egia ote den jakiteko.

Aitonari esan eta barrezka hasi da honakoa esanez: iloba maitea, nire amak beti esaten zigun hori ekaitza zetorren bakoitzean. Ondo portatu Fernando! Anbotoko señoie dabil hemendik eta zintzoa ez bazara, bere haitzulora eramango zaitu zigortuta. Gu beldurtzen ginen eta etxera joaten ginen laster batean.

Aitonak kontaturiko istorio horrek gehiago beldurtu nau. Ohera joateko garaia heldu da, baina nik ezin lorik hartu. Hurrengo egunean, andereño Izarori kontatu beharko diot ikasitako guztia gelara sartu bezain laster. Azkenean, orduak eta orduak pentsatzen egon eta gero, loak hartu nau.

Hurrengo goizean, espero baino goizago esnatu naiz. Inoiz baino azkarrago motxila prestatu, gosaldu eta txandala jantzi dut. Eskolako autobusean mutu joan naiz. Leihora begiratzen eman dut bidaiaria osoa, ikusten nituen mendi guztietan ea kobazulorik ote dagoen begiraturuz.

Eskolara heldu garenean, andereñoari esan diot aitonak kontutako istorioa. Berak ez zekien eta ikaskideei kontatzeko eskatu dit. Nire ikaskide batzuek ez dute sinetsi kontatzen ari nintzaiena, eta beste batzuk beldurtu egin dira.

Gaurko eguraldia gero eta kaskarragoa da, eta arratsalde euritsua izan dugu. Gaua heldu denerako, Gorbeia menditik, tximistak ikusten hasi gara baita trumoiak entzuten ere!

Ohean nago etzanda, beldurrez jota eta izarekin belarrietaraino estalirik. Anbotoko señoie egongo ote da handik? Nork esango ote zuen gezurren bat? Edo lapurretarik egin? Aagian norbaiten laguntasuna eta zintzotasuna dator.

Egia esanda, ez dakit tximista eta trumoi horiek Anbotoko Dama izango ote diren. Dakidan bakarra zera da: gau hartan ezin izan nuela minutu bat ere ez lorik egin, eta handik aurrera zintzo-zintzo ibili nintzen eskolan eta etxean. Ez nuen Anbotoko señoie erakarri nahi!

AMAIERA

9. eranskina. Proposameneko saioen ariketak eta segida

1. SAIOA	
Izenburua	<i>“Liburuarekin laguna egiten naiz”</i>
Erabilitako estrategia mota(k)	<ul style="list-style-type: none"> - Aurkezpena estrategia. - Inpregnazioa. - Entzute aktiboa. - Sormenezko ariketak eta tailerrak
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> - Album ilustratu batek dituen elementuak ezagutzea: azala, autorea, izenburua, besteak beste. -Istorioaren argumentuarekin eta pertsonaiekin lehenengo harremana eta ulermena egitea: lehenengo hipotesien formulazioa.
Denbora	60 minutu
Baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> - Materialak: album ilustratua, folioak, gelako materiala (arkatza, margoak, errotuladoreak, besteak beste). - Giza baliabideak: irakasle/ bitartekari baten presentzia. - Azpiegitura baliabideak: liburutegia edo espazio zabal bat.
Garapena	<p>Saioa hiru momentu ezberdinetan banatuta egongo da. Lehenik, albumeko elementuen azterketa burutuko da. Horretarako, irakasleak honako galderak egingo dizkie ikasleei: zein da album ilustratu honen izenburua? Zer dakizue Anbotoko Mariri buruz? Nor da istorio honen idazlea/ autorea? Zer ikus dezakezue azalean? Zeri buruzkoa izango da? Nolakoak izango dira pertsonaiak: fantastikoak edo errealak? Irakasleak, bikoteka daudela, galdera horien erantzunak topatzen saiatuko dira.</p> <p>Bigarrenik, album ilustratuari buruzko informazioa ikasi ondoren, ikasleei liburutegiko leku bat aukeratzea eta, begiak itxita, etzatea eskatuko zaie. Ondoren, irakasleak istorioa irakurriko die, eta ikasleei istorioa imajinatzeke eskatuko zaie.</p> <p>Hirugarrenik, ikasleek imajinatutako gauza guztiak (paisaiak zein pertsonaiak) marraztu edo deskribatuko dituzte. Hau amaitutakoan, bakoitzak egindakoa horman zintzilikatuko da, gainerako ikaskideek ikusi ahal izateko.</p>

Ebaluazioa	Bitartekariak, kasu honetan irakasleak, behaketa sistematikoan oinarritutako ebaluazioa burutuko du. Horretarako, irizpide batzuk aztertu eta behatu beharko ditu. Horien artean: ikasleen inplikazioa eta partaidetza, ikasleen arreta eta entzute maila eta maila kognitiboan egiten dituzten loturak eta harremanak. Irakasleak lortuko duen informazio hori koaderno batean jasoko du saioa amaitutakoan.
-------------------	---

2. SAIOA	
Izenburua	<i>“Istoriaa aztertzen eta ulertzen dugu!”</i>
Erabilitako estrategia mota(k)	- Entzute aktiboa - Irakurketa estrategia
Helburuak	- Ikasleek istorioaren argumentua ulertu dutela bermatzea. - Ikasleen entzute aktiboa sustatzea.
Denbora	60 minutu
Baliabideak	- Materialak: album ilustratua, “Liburuko fitxa” izeneko fitxa eta gelako materiala. - Giza baliabideak: irakasle/ bitartekari baten presentzia. - Azpiegitura baliabideak: liburutegia edo espazio zabal bat.
Garapena	Liburutegian ikasleei biribil bat egitea eskatuko zaie. Irakaslea haiekin jesarriko da album ilustratua eskuetan izanik. Saioari hasiera emateko, irakasleak birritan irakurriko du albuma. Gaurko honetan, ikasleek ilustrazioak ikusteko aukera izango dute, eta aurreko saioan aldeztatik ezarritako “hipotesi” horiek baieztatuko dituzte. Irakasleak irakurtzen duen heinean, azpimarratu nahi dituen aspektuetan geldituko da, baita ikasleei galderak ere egingo dizkie. Irakasleak albuma birritan irakurri eta gero, ikasle bakoitzari “Liburuko fitxa” izeneko fitxa bat banatuko die, eta bakoitzak berea osatuko du. (ikus 10. eranskina).
Ebaluazioa	Aurreko saioan bezala, irakasleak, behaketa sistematikoan oinarritutako ebaluazioa egingo du. Horretarako, aurreko saioko irizpideak ez ezik, “Liburuko fitxa”-ko emaitzak ere behatuko ditu; hau da, ikasleek nola bete duten fitxa, noraino izan diren gai, eta zer informazio jaso duten. Informazio hori guztia irakasleak bere koadernoan idatziz jasoko du

	behin saioa amaituta.
--	-----------------------

3. SAIOA	
Izenburua	<i>“Nola amaitzen da zuen istorioa?”</i>
Erabilitako estrategia mota(k)	<ul style="list-style-type: none"> - Sorkuntza eta birsorkuntza estrategia - Jolasak - Sormenezko ariketak eta tailerrak - Entzute aktiboa
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek istorioaren argumentua ulertu dutela bermatzea. - Ikasleen entzute aktiboa sustatzea. - Irakurketak eskaintzen duen alderdi ludikoa lantzea.
Denbora	60 minutu
Baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> - Materialak: album ilustratua, folioak eta gelako materiala (arkatza, margoak, errotuladoreak, besteak beste). - Giza baliabideak: irakasle/ bitartekari baten presentzia. - Azpiegitura baliabideak: liburutegia edo espazio zabal bat.
Garapena	<p>Saioa hiru ataletan banatuta egongo da: lehenik eta behin, ikasleei biribil bat egitea eskatuko zaie. Jarraian, aurreko saioetan irakurritako “Anbotoko señorie” album ilustratuaren argumentua birpasatzeko eta gogoratzeko, ikasleei istorioa berriro eraikitzeke eskatuko zaie. Horretarako, irakasleak albumean datozen ilustrazioak banan-banan erakutsiko ditu, eta biribileko ordena mantenduz, ikasle bakoitzak esaldi bat esango du. Hau da, bere alboan dagoen ikaskideak esandakoa jarraitzeko esaldi bat asmatuko dute, guztion artean istorioa berreraikitzeke.</p> <p>Bigarrenik, “Harrapatuta!” izeneko jarduera burutuko da. Ariketa hau, irakasleak aldatuta dagoen istorioaren bertsio bat irakurtzean eta ikasleek zer aldatu duten asmatzean datza. Beraz, irakasleak pertsonaien izenak, esaldiak, eta bestelako elementuak aldatuko ditu eta ikasleek horrelakoak entzutean, ozen, “Harrapatuta!” esan beharko dute.</p> <p>Saioarekin amaitzeko, ikasleei bikoteka ipintzea eskatuko zaie (aurreko saioetan sortutako bikoteak mantenduz), eta binaka, istorioari amaiera ezberdin bat ematea proposatuko zaie. Horretarako, testu txikitxoak ez</p>

	ezik, ilustrazioak ere sortu beharko dituzte. Saioaren bukaeran, bikote bakoitzak asmatutako amaiera irakurriko du.
Ebaluazioa	<p>Aurreko saioetan bezala, behaketa sistematikoa erabiliko da saio honen ebaluazioa egiteko. Saio guztietan behatuko diren irizpideak ez ezik, bestelako aspektuak aztertuko dira honetan. Horien artean:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasleak zein motatako esaldiak sortzen dituen. • Amaiera berriaren sormen maila. • “Harrapatu!” ariketan ematen diren erantzunak.

4. SAIOA	
Izenburua	“Anbotoko señoerie ezagutzen dugu!”
Erabilitako estrategia mota(k)	<ul style="list-style-type: none"> - Sorkuntza eta birsorkuntza estrategia - Irakurketa ondoko estrategia
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> - Anbotoko Mari pertsonaia mitologikoaren ezagutzak zabaltzea. - Irakurketak duen alderdi interdiziplinarra jorratzea.
Denbora	60 minutu
Baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> - Materialak: album ilustratua, folioak, kartulinak, lekedak, aldizkariak, gelako materiala (arkatza, margoak, errotuladoreak, besteak beste). - Giza baliabideak: irakasle/ bitartekari baten presentzia. - Azpiegitura baliabideak: liburutegia edo espazio zabal bat.
Garapena	<p>Saio honetan, Anbotoko Mari pertsonaiari buruzko lanak egingo dira. Horretarako, bikoteka pertsonaia mitologikoari buruzko <i>lapbook</i> bat sortuko dute. <i>Lapbook</i> horretan, album ilustratuan Mariri buruz agertzen den informazio guztia islatu beharko dute. Irakasleak, jarraibide batzuk emango ditu ikasleek gidoia izateko. Adibidez, non bizi zen señoerie; zein izen ematen zioten; zer gustatzen zitzaion eta zer ez; zer egiten zuen egunean zehar; nolakoa zen señoerie, besteak beste.</p>
Ebaluazioa	Behaketa sistematikoan lortutako datuez gain, irakasleak bikote bakoitzak sorturiko <i>lapbook</i> eta aurkezpena ere ebaluatuko ditu.

5. SAIOA	
Izenburua	“Gure proiektuaren amaiera!”
Erabilitako estrategia mota(k)	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurketa ondoko estrategia - Entzute aktiboa
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> - Anbotoko señoieren <i>lapbook</i>-aren ahozko aurkezpena burutzea. - Anbotoko Mari pertsonaiaren ezagutzak finkatzea. - Proiektuaren amaierako ebaluazioa gauzatzea. - “Anbotoko señoie” album ilustratuaren azken irakurketa ludikoa egitea.
Denbora	60 minutu
Baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> - Materialak: sortutako <i>lapbook</i>-a eta album ilustratua. - Giza baliabideak: irakasle/ bitartekari baten presentzia. - Azpiegitura baliabideak: liburutegia edo espazio zabal bat.
Garapena	<p>Azken saioak, bi atal izango ditu: alde batetik, bikoteka egindako <i>lapbook</i>-aren ahozko aurkezpena, eta bestetik, proiektuaren ebaluazioa. Lehenik eta behin, bikote bakoitzak sortutako <i>lapbook</i>-a azalduko die gainerako ikaskideei. Behin guztiek amaitu dutela, proiektuaren ebaluazioari ekingo zaio (“3.Proposamena” ataleko “8.Ebaluazioa” puntuan azaldu den bezala). Azkenik, saioarekin zein proiektuarekin amaitzeko, irakasleak “Anbotoko señoie” albuma irakurriko die.</p>
Ebaluazioa	<p>Azken saio honetan, behaketa sistematikorako zehaztutako aspektuez gain, bi alderdi gehiago behatuko ditu. Alde batetik, ikasleen komunikazio gaitasuna (<i>lapbook</i>-aren aurkezpena burutzen dutenean), eta ikasleen jarrera kritikoa eta adierazten dituzten sentimenduak (proiektuaren amaierako ebaluazioa gauzatzen denean).</p>

10. eranskina. Liburuko fitxa

<i>Izena eta abizenak:</i> _____	<i>Gela:</i> _____
<i>Album ilustratuko elementuak:</i>	
✚ <i>Izenburua:</i> _____	
✚ <i>Autorea:</i> _____	
✚ <i>Protagonistak:</i> _____	
<i>Istoria:</i>	
✚ <i>Hasierra: Nola hasten da istorioa?</i>	
✚ <i>Korapiloa: Zer gertatzen zaio protagonistari?</i>	
✚ <i>Amaiera: Nola amaitzen da istorioa?</i>	